

ERABAKIA, 2018ko URTARRILAREN 22koa, UPV/EHUko GERENTEARENA, LAN POLTSA ZABALTZEKO HAUTAKETA PROZESURAKO DEIALDIA EGITEKOA, ADMINISTRAZIO ETA ZERBITZUETAKO LANGILEEN (AZP) ARLOAN ALDI BATERAKO ZERBITZUAK BETETZEKO. LAN POLTSA: KIMIKAKO TEKNIKARI ESPEZIALISTA.

Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitateak uneoro eduki behar du eskura AZPkoen zereginak betetzeko moduan dauden pertsonen zerrenda bat, bai dauden lanpostu hutsak betetzeko, harik eta lanpostu horiek arauk agintzen duten moduan bete arte, eta bai aldi baterako premiak asetzeko.

Unibertsitatean aldi baterako lana kudeatzeko eta antolatzeko tresna 2010eko martxoaren 26ko Akordioa da, lan poltsak eratzeari eta kudeatzeari eta lan poltsetako kideak ordenatzeari buruzkoa (2010eko ekainaren 8ko EHAA, 107. zk.).

Akordio hori aplikatuz, administrazioak dauden poltsak zabaltzeko behar dituzten lanerako moduan dauden izangaien kopurua ez denean nahikoa aurreikusten diren premiei erantzuteko. Horretarako, behar diren aldi baterako hautaketa deialdiak egingo ditu.

Hori dela eta, deialdi honen helburua da III. taldeko pertsonak hautatzea Kimikako Teknikari Espezialisten kategorian sor litezkeen premiak betetzeko.

Gerenteari eskuordetu zaio erabaki hau emateko eskumena, Euskal Herriko Unibertsitateko errektorearen 2017ko urtarrilaren 25eko Erabakia dela bide (gobernu taldearen egitura eta funtzionamendu arloak zehazteko, eta eskumenak eskuordetzeko erabakia, 2017ko otsailaren 3ko EHAA). Beraz, aurreko guztia kontuan hartuta, gerenteak honako hau

ERABAKI DU

Lehen artikulua.- Deialdia egitea Kimikako Teknikari Espezialisten kategorian lan poltsa zabaltzeko hautaketa prozesurako, erabaki honen I. eranskinean jasotako oinarrien arabera.

Lan poltsa honen bidez beteko diren eginkizunak eta lanpostuak honako talde eta kategoriakoak dira: III. taldea, Kimikako Teknikari Espezialisten kategoria.

Prozesu honetan hautatutako pertsonak hiru campusetako edozeinetan bete ahal izango dituzte zerbitzuak.

Bigarren artikulua.- Erabaki honek amaiera ematen dio administrazio bideari eta beraren kontra aukerako berraztertze errekurtsioa aurkez dakioke gerenteari hilabeteko epean, edo, bestela, administrazioarekiko auzi errekurtsioa jar daiteke zuzenean administrazioarekiko auzietako dagokion epaitegian bi hilabeteko



Universidad del País Vasco Euskal Herriko Unibertsitatea

NAZIOARTEKO
BIKAINASUN
CAMPUSA
CAMPUS DE
EXCELENCIA
INTERNACIONAL

epean. Erabakia hedabideetan argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera hasiko dira kontaktzen epe biak.

Leioa, 2018ko urtarrilaren 22a

Lore Bilbao Artetxe
UPV/EHUko gerentea



I. ERANSKINA

LAN POLTSA ZABALTZEKO DEIALDIAREN OINARRIAK. LAN POLTSAREN IZENA: KIMIKAKO TEKNIKARI ESPEZIALISTAK (III. TALDEA)

Lehena.- Helburua eta oinarrizko elementuak.-

1.1.- Helburua.- Deialdi honen helburua da Kimikako Teknikari Espezialisten lan poltsa zabaltzea, UPV/EHUren aldi baterako premiak betetzeko.

1.2.- Oinarrizko elementuak.

1.2.1.- Hautatutako pertsonak beteko dituzte edo hutsik dauden lanpostuak, harik eta lanpostuok arauk agintzen duten bezala bete arte, edo unibertsitatean sortzen diren aldi baterako premiak. Betiere, beharrezkoa izango da kasuan kasuko lanpostua edo premiak asetzeko behar diren baldintzak betetzea.

1.2.2.- Kasu bakoitzean lanaldia eta ordainsaria izango dira deialdiaren bidez bete nahi den lanpostuari edo premiei dagozkienak.

1.2.3.- Lanpostuak kokatuta egon ahal izango dira UPV/EHUren edozein lokaletan, eta hiru lurralde historikoetako edozeinetan.

1.2.4.- Hautatutako pertsonak Kimikako Teknikari Espezialisten lan poltsan sartuko dira, bertan dagoen azken pertsonaren atzetik. Lan poltsak erabiltzean beti jarraituko zaio lan poltsak kudeatzeko arautegiari.

1.2.5.- Aplikatu beharreko arau orokorrez gain, lan poltsei buruzko akordioak ere aplikatu beharko dira.

Bigarrena.- Izangaiek bete beharreko baldintzak.-

2.1.- Baldintza hauek bete beharko dira prozesuan parte hartzeko:

- a. Hamasei (16) urte beterik izatea eta nahitaezko erretirorako adina bete gabe izatea.
- b. Titulu hauetako bat edo gehiago edukitzea, edo eskuratzeko eskubideak ordainduta izatea: Batxilergoa, Batxilergo Bateratu Balioaniztuna, Lanbide Heziketako goi mailako teknikaria edo teknikari espezialista edo titulu baliokidea.
- c. Eskaria behar bezala bete eta aurkeztea, eta prozesuan parte hartzeko tasak ordaintzea, deialdiko hirugarren oinarrian zehazten den legez.

- d. Europar Batasuneko kidea den herrialderen bateko herritarra izatea; edo, Europar Batasunak hitzartu eta Espainiak berretsi dituen nazioarteko hitzarmenak direla bide, langileen zirkulazio askea aplikatzen den herrialderen bateko herritarra izatea. Espainiako eta Europar Batasuneko estatuetak nazionalitatea duten pertsonen ezkontideek ere parte har dezakete (zuzenbidez banaturik ez badaude), bai eta euren ondorengoek eta ezkontidearen ondorengoek ere (ezkontideak zuzenbidez banaturik ez badaude), baldin eta ondorengook 21 urtetik beherakoak badira edo, adin horretatik goragokoak izan arren, haien pentsura bizi badira. Era berean, aurreko paragrafoetan jasota ez dauden atzeritarrek ere hartu ahal izango dute parte, estatu espainiarrean egoitza badute. Hautatuak izanez gero, pertsona horiek, kontratua sinatu baino lehen, egiaztatu beharko dute administrazioaren baimena daukatela kontratuko zereginak betetzeko.
- e. Egin beharreko lanak egiteko gaitasun funtzionala izatea. Edozelan ere, beti aplikatuko da Desgaitasuna daukaten pertsonen eskubideei eta haien inklusio sozialari buruzko Lege Orokorraren testu bategina (1/2013 Legegintzako Errege Dekretua, azaroaren 29koa). Lan poltsatik deituz gero, langileak gaitasun fisikoa eta psikikoa duela egiaztatu beharko du medikuaren ziurtagiria aurkeztuz edo osasun azterketa eginez. Baldintza hori bete beharko du bitarteko funtzionario izendapena jasotzeko. Desgaitasun fisikoa edo psikikoa duten pertsonak gainerako lehiakideen baldintza berdinetan onartuko dira prozesuan, betiere egiaztatzen badute nahikoa gaitasuna dutela lan poltsari dagozkion lanpostuen zereginak betetzeko.
- f. Diziplina espedientearen bidez aldenduta ez egotea administrazio publikoetatik edo autonomia erkidegoetako konstituzio edo estatutu organoetatik, eta ebazpen judizial baten ondorioz desgaitasun absoluturik edo berezirik ez edukitzea enplegu edo kargu publikoak betetzeko, edo norbera aldendua edo desgaitua izan den funtzionarioen kidego edo eskalan sartzeko edo norbera aldendua edo desgaitua izan aurretik lan kontratudun gisa betetzen zituen eginkizunen parekoak betetzeko. Beste estatu batzuetako nazionalitatea dutenen kasuan, desgaituta edo pareko egoera batean ez egotea, eta diziplina zehapenik edo antzekorik ez izatea, bere estatuan enplegu publikora sartzeara eragozten dionik.
- g. Legezko desgaitasun edo bateraezintasun arrazoirik ez izatea.

2.2.- Baldintza horiek eskariak aurkezteko epea amaitzen denerako bete beharko dituzte izangaiek, bateraezintasunaren inguruko baldintza —g) atalean aipatutakoa— izan ezik. Azken hori bete beharko dute bitarteko funtzionario izendapena egiten zaienerako, lanpostua betetzeko hautatuak izanez gero.

Hirugarrena.- Eskariak aurkezteko era.-

3.1.- Eskariak eredu ofizial eta normalizatuan aurkeztuko dira, bide hauetako bat erabiliz:

- a. Internetez, Langileen Atarian inprimakia betez.
Bide hau aukeratuz gero, eskatzaileak egiaztagiria eskuratu ahal izango du erreferentzia zenbaki batekin, bai eta tasak ordaintzeko ordainagiria ere.
- b. Interneteko helbide honetan inprimakia eskuratuz eta betez:
<http://go.ehu.eus/seleccion-pas>.

3.2.- Onartuak izateko eta probetan parte hartu ahal izateko, izangaiek eskariaren atal guztiak bete beharko dituzte, eta dagozkion tasak ordaindu. Eskarian adierazi beharko dute bigarren oinarrian eskatutako baldintza guztiak betetzen dituztela, betiere eskariak aurkezteko epea amaitzen den datarako, oinarri horren bigarren atalean zehazten diren salbuespenekin.

3.3.- Eskariak aurkezteko lekuak:

Internetez aurkezten ez diren eskariak UPV/EHUko Erregistro Orokorraren bulegoren batean aurkeztu beharko dira:

UPV/EHUko erregistro bulegoen zerrenda argitaratuta dago UPV/EHUko Gobernu Kontseiluaren 2012ko maiatzaren 16ko Erabakiaren I. eranskinean (UPV/EHUko Erregistro Orokorraren Antolaketa eta Funtzionamendurako eta Erregistro Elektronikoa Sortzeko Arautegia).

Esteka honetan ikus daiteke non dauden eta zein ordutegi duten bulegoak:
http://www.ehu.es/oficinas_registro.html

Era berean, eskariak aurkeztu ahal izango dira Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen Legean aipatzen diren bideak erabiliz (39/2015 Legea, urriaren 1ekoa, 16. art.).

Eskaria posta bulegoetan aurkezten dutenek gerenteari zuzendu beharko diote eta aurkeztu beharko dute posta zerbitzuak arautzen dituen errege dekretuan zehazten den moduan (1829/1999 Errege Dekretua, abenduaren 3koa, 31. art.).

Modu elektronikoa bidalitako eskariak ez dira paperean ere aurkeztu beharko. Dena dela, eskatzaileak tasa ordaindu badu sistemak ematen duen ordainagiria erabiltzeko, ordaindu izanaren egiaztagiria aurkeztu beharko du.

3.4.- Tasak:

Tasa hauek ordaindu beharra ezarrita dago Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren Tasa eta Prezio Publikoei Buruzko Legearen testu bateginean

(1/2007 Legegintzako Dekretua, irailaren 11koa, 2007ko abenduaren 27ko EHAA, 248. zk.). Ordaindu beharreko zenbatekoa 15,03 euro dira.

Deialdi honetako 2.1. c) oinarrian zehaztutako baldintza betetzeko, tasak eskariak aurkezteko epearen barruan (ikus 3.6 oinarria) ordaindu beharko dira.

Eskaria Internetez aurkezten bada, tasak ordaindu ahal izango dira sistemak ematen duen ordainagiria Kutxabankeko edozein bulegotan aurkeztuta, edo erakunde horren kutxazainetan barra kodeen irakurgailuak erabiliz. Modu elektronikoa ere ordaindu ahal izango da, Euskal Autonomia Erkidegoko ordainketa pasabidearen bitartez.

Eskaria eskuz eginez gero, harekin batera tasa ordaindu izanaren egiaztagiria ere aurkeztu beharko da. Diru sarreraren «kontzeptuan» jarri beharko da ordaintzailearen NAN zenbakia, eta kasuan kasuko lan poltsaren izena. Tasa ordaintzeko kontu zenbakiak paperezko eskari orriaren atzeko aldean azaltzen dira.

Eskariak aurkezteko epean tasa ordaindu ezean, eskatzailea prozeduratik kanpo geratuko da. Ez da epe gehigarririk emango tasa ordaintzeko.

Era berean, tasa bankuan ordaindu izanaren agiria aurkeztu arren, ezin izango da prozesuan parte hartu eskaria legezko epean eta eran ez bada aurkezten, aurreko ataletan zehaztu den bezala.

3.5.- Eskariak aurkezteko epea hamar egun naturalekoa izango da, deialdia hedabideetan argitaratu eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita.

3.6.- Desgaitasunen bat daukaten langileek hala adierazi beharko dute eskarian, horretarako egongo den laukian. Era berean, beharrezko badute denbora edo baliabideak egokitzea probak egin ahal izateko, hala adierazi beharko dute. Egokitzapenak beharrezkoak direla egiaztatzeko, eskatzaileak desgaitasuna aitortzen dion agiri ofiziala eta behar dituen egokitzapenei buruzko txostena aurkeztu beharko ditu. Dokumentu horiek onartuen eta baztertuen behin betiko zerrenda argitaratu baino lehen aurkeztu beharko dira, epaimahaiak beharrezko neurriak har ditzan.

Desgaitasuna duten pertsonatzat joko dira Desgaitasuna daukaten pertsonen eskubideei eta haien inklusio sozialari buruzko Lege Orokorraren testu bateginean hala definitutakoak (1/2013 Legegintzako Errege Dekretua, azaroaren 29koa, 4. art.), hau da, administrazioko organo eskudunak %33ko desgaitasuna edo handiagoa aitortu dienak.

Eskariarekin batera ez da aurkeztu beharko inolako dokumenturik, ez bada egokitzapenak eskatzeko eta tasak ordaindu izana egiaztatzeko aurkeztu beharrekoa, aurreko atalean azaldu den moduan.

3.7.- Prozedura honetan parte hartzeak berekin dakar baimena ematea eskarian emandako datu pertsonalak tratatzeko, bai behin-behineko eta behin betiko emaitzak iragarki oholetan eta web orrian argitaratzean eta bai lan poltsen kudeaketan. Interesdunek eskubidea dute beren datuetan sartzeko, datuak zuzentzeko, datuak ezerezteko edo datuen aurka egiteko. Horretarako, deialdia egin duen organora jo beharko dute.

Beraz, eskaria sinatzeak esan nahi du eskatzaileak honen gaineko informazioa jaso duela eta baimena ematen duela bere datuak aipatutako helburuetarako erabil daitezen.

Laugarrena.- Izangaiak onartzea.-

4.1.- Eskariak aurkezteko epea amaitu eta gehienez ere hilabeteko epean, UPV/EHUko gerentearen erabaki baten bidez, onartuen eta baztertuen behin-behineko zerrenda argitaratuko da UPV/EHUren web orrian, administrazio eta zerbitzuetako langileen atalean: <http://go.ehu.eus/seleccion-pas>

Baztertutako izangaiek bost egun baliouduneko epea izango dute, zerrendak argitaratu eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita, erreklamazioa jartzeko.

Epearen barruan aurkeztutako erreklamazioak onetsi edo ezetsiko dira onartuen eta baztertuen behin betiko zerrenda argitara ematen duen erabakiaren bidez.

Interesdunak ez badu konpontzen, aipatutako epean, bera baztertzea ekarri duen akatsa, eskaria bertan behera utzi duela ulertuko da, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen Legeari jarraituz (39/2015 Legea, urriaren 1ekoa, 68.1 art.).

4.2.- Behin-behineko zerrendaren kontra erreklamazioak jartzeko epea amaitutakoan, hamar eguneko epean argitaratuko da onartutako izangaien behin betiko zerrenda. Erabaki horren kontra aukerako berraztertze errekurtsioa aurkeztu ahal izango zaio, hilabeteko epean, UPV/EHUko gerenteari, edo, zuzenean, administrazioarekiko auzi errekurtsioa jarri ahal izango zaio, bi hilabeteko epean, jurisdikzio horretako dagokion epaitegian.

4.3.- Prozeduran zehar epaimahaiak jakiten badu hautagaien batek ez duela betetzen deialdian eskatutako baldintzaren bat, baztertu egingo du hautagai hori

prozesutik, aurretik hari entzunda, eta egunean bertan jakinarazi beharko dio Administrazio eta Zerbitzuetako Langileen Zerbitzuari.

4.4.- Izengaien behin-behineko eta behin betiko zerrendetan datu hauek agertuko dira: izena, bi abizenak eta NAN zenbakia, edo, atzerriko hautagaien kasuan, pareko agiriarena. Horren helburu bakarra da fase bakoitzean prozesuaren publizitate printzipioa betetzea eta interesdunei jakinarazpenak egitea. Edozelan ere, datuen erabilera hau bat dator datu pertsonalen babeserako legediarekin.

Bosgarrena.- Epaimahaia.-

5.1.- Epaimahaia gizonez eta emakumeez osatua egongo da modu orekatuan. Epaimahaikideek gaitasun eta prestakuntza egokia izango dute.

Hiru kide izango ditu epaimahaiak: epaimahaiko burua eta UPV/EHUko administrazioak izendatutako bi kide; horietako bat idazkaria izango da.

Epaimahaiaren osaera gerentearen erabaki baten bidez argitaratuko da.

Epaimahaiak kide anitzeko organoen funtzionamendu arauetara jarraituz jardungo du.

5.3.- Epaimahaikide guztiek izango dute hitza eta botoa. Epaimahaiaren erabakiak bertaratuen botoen gehiengoaz hartuko dira. Berdinketa egonez gero, epaimahaiko buruaren botoak ebatziko du.

5.3.- Epaimahaiaren behin betiko erabakien kontra gorako errekurtsioa aurkeztu ahal izango zaio UPV/EHUko gerenteari hilabeteko epean, erabakia argitaratu eta hurrengo egunetik kontatzen hasita.

5.4.- Epaimahaian, gainera, bi ordezeko egongo dira. Horiek izendatuko dira titularrak izendatzearekin batera.

5.5.- Epaimahaia ezin izango da osatu, ezta aritu ere, ez badira bertaratzen epaimahaiko burua eta idazkaria (edo haien ordezekoak) eta gutxienez epaimahaikideen erdiak (titularrak edo ordezekoak).

5.6.- Epaimahaiko buruaren eta bere ordezekoaren karguak hutsik badaude, edo kargu horietarako izendatutako pertsonak kanpoan edo gaixorik badaude edo epaimahaian egon ezin badira arrazoi legalen bategatik, maila, antzintasun eta adin handieneko epaimahaikideek ordezkatzeko dituzte, hurrenkera horretan.

Idazkariaren eta bere ordezkorearen karguak hutsik badaude, kargu horietarako izendatutako pertsonak kanpoan edo gaixorik badaude edo epaimahaian egon ezin badira arrazoi legalen bategatik, epaimahaiak gehiengoz aukeratzen dituzten epaimahaikidek ordezkaturiko dituzte.

5.7.- Epaimahaikideak prozeduran parte hartzetik abstenituko dira, eta UPV/EHUko gerenteari emango diote horren berri, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren Legearen 23. artikuluan aipaturiko egoeraren batean daudenean (40/2015 Legea, urriaren 1ekoa).

Era berean, egoera horietakoren bat gertatuz gero, interesdunek epaimahaikideak errekusatu ahal izango dituzte, lege beraren 24. artikuluari jarraituz.

5.8.- Bermatu beharko da oposizio fasea gainditzen dutela probara aurkezten diren pertsonen % 33k gutxienez. Beraz, hautaketa sistema ondo aplikatzeko eta oposizio fasea gainditu behar duten pertsonen ehuneko hori lortzeko, epaimahaiak, aurkeztu diren pertsonak nortzuk diren jakin barik, jaitsi ahal izango du proba bakoitza gainditzeko beharko den gutxieneko puntuazioa, betiere kontuan hartuta probetan eskatu beharreko gutxieneko maila eta izangaiek erakutsitakoa. Gainditzeko behar den gutxieneko puntuazioa jaistea erabakiz gero, argitara emango du erabaki hori epaimahaiak.

5.9.- Jakinarazpenetarako eta bestelako gorabeheretarako, hau izango da epaimahaiaren helbidea: Bizkaiko Campusa, Pertsonaleko Gerenteordetza, AZPkoen Zerbitzua, Langileak Hautatu eta Lanpostuak Bëtzeko Atala, Sarriena auzoa z.g.- 48940 Leioa.

Seigarrena.- Hautaketa prozesuaren garapena.-

6.- Hautaketa prozesuak fase hauek izango ditu:

6.1.- Oposizioa

Oposizio fasean honako ariketa hauek egin beharko dira:

6.1.1.- Ariketa bakarra: nahitaezkoa eta baztertzailea.

Hautaketa prozesuan ariketa teoriko-praktiko bat egin beharko da, gutxienez zero (0) punturekin eta gehienez hogeï (20) punturekin baloratuko dena.

Ariketa teoriko-praktikoa idatzizkoa izango da eta test motako hirurogeï (60) galdera erantzun beharko dira, gehi erreserbako beste hamar (10); galderak

erantzun anitzekoak izango dira, oinarri hauetako II. eranskinean zehaztutako gaiei buruzkoak.

Ez da punturik kenduko okerreko erantzunengatik edo erantzun gabeko galderengatik.

Ariketak kalifikazioa zerotik (0) hogeira (20) bitartekoa izango da, eta hamar (10) puntu lortu beharko dira gainditzeko.

Puntuazio totala lortzeko, gainditu dutenen zuzeneko puntuazioak amaierako puntuazio bihurtuko dira banaketa proportzional baten arabera, hau da, (60) puntuko zuzeneko puntuazioa izango da hogei (20) puntuko amaierako puntuazioaren parekoa. Eragiketa horiek guztiak izangaien izen-abizenak jakin barik egingo dira.

6.1.2.- Epaimahaiak izendatuko ditu proben datak, orduak eta lekuak, eta iragarriko ditu EHU Taularen bitartez eta laugarren oinarriko lehen atalean aipatutako web orriaren bidez.

Epaimahaiak ariketak egiteko denbora eta bitartekoak egokitu beharko ditu desgaitasuna duten eta hirugarren oinarrian zehaztu bezala hala eskatu duten pertsonentzat, izangai horiek gainerakoen aukera berberak izan ditzaten, betiere horrek probaren edukia desitxuratu barik, aldi baterako langileak kontratatuzko deialdi batek izan beharreko tramitazio arina moteldu barik eta lanerako eskatzen den gaitasun maila jaitsi gabe.

6.1.4.- Izangaiei deialdi bakarria egingo zaie proba egiteko. Probara azaltzen ez direnak prozesutik baztertuta geratuko dira, ezinbesteko kasuetan izan ezik, betiere behar bezala justifikatzen bada eta epaimahaiari justifikazioa nahikoa iruditzen bazaio. Probarako deia egingo da EHU Taularen bitartez eta laugarren oinarriko lehen atalean aipatzen den web orriaren bidez.

6.1.5. Izangaiek beren identitatea egiaztatuzko dokumenturen bat eraman beharko dute probara (NANA, pasaporte edo gida baimena), eta epaimahaiko kideek edozein momentutan eskatu ahal izango diete agiria erakusteko.

6.1.6.- Probak euskaraz egin gura dituztenek halaxe adierazi beharko dute eskari orria betetzean. Antolaketa arintzeagatik, inork ez badu eskatzen probak euskaraz egitea, gaztelaniaz egingo dira.

6.1.7.- Oposizio faseko behin-behineko emaitzak argitaratu ondoren, bost egun balioduneko epea irekiko da erreklamazioak aurkezteko.

6.2.- Merezimendu lehiaketa

6.2.1.- Oposizio faseko behin-behineko emaitzak argitaratu ondoren, bost egun balioduneko epea irekiko da lehiaketa faserako merezimenduak aurkeztu eta egiaztatzeko.

Oposizio faseko behin-behineko emaitzen kontrako erreklamazioa aurkezten dutenek erreklamazioarekin batera merezimenduak eta haien egiaztagiria aurkeztu beharko dituzte.

6.2.2.- Fase honetako kalifikazioa lortzeko —gehienez ere hamar (10) puntukoa izango dena— batu egingo dira merezimenduetako puntu guztiak, honako baremo honen arabera:

- a) Titulazio akademiko ofizialak. Deialdi honetan sartzeko eskatzen denaz bestelako titulazio akademiko ofizialak baloratuko dira, baremo honen arabera:
- Graduatu, lizentziatu, unibertsitateko diplomatu, goi mailako ingeniari edo ingeniari tekniko, goi mailako arkitekto edo arkitekto tekniko titulua: 4 puntu, espezialitatearekin loturarik badu; 2 puntu, loturarik ez badu.
 - Goi mailako edo teknikari espezialista tituluagatik, alegatutakoaz bestelakoa: 6 puntu, espezialitatearekin loturarik badu; 4 puntu, loturarik ez badu.
 - Batxilergoko edo Batxilergo Bateratu Balioaniztuneko titulua, alegatutakoaz bestelakoa: 2 puntu

Tituluak egiaztatzeko, tituluaren fotokopia edo titulua jasotzeko eskubideak ordaindu izanaren agiria aurkeztu beharko da. Tituluak eskariak aurkezteko epea amaitu aurretik lortutakoak izan beharko dira, bestela ez dira aintzat hartuko.

- b) Euskal Autonomia Erkidegoan ofizialak ez diren hizkuntzak. Merezimendu hau baremo honen arabera baloratuko da:

Frantsesa, ingelesa edo alemana:

- B2 edo gorakoa (Hizkuntzen Europako Erreferentzia Marko Bateratua): 3 puntu, hizkuntza bakoitzeko.
- B1 (Hizkuntzen Europako Erreferentzia Marko Bateratua): 2 puntu, hizkuntza bakoitzeko.
- A2 (Hizkuntzen Europako Erreferentzia Marko Bateratua): 1,5 puntu, hizkuntza bakoitzeko.
- A1 (Hizkuntzen Europako Erreferentzia Marko Bateratua): 1 puntu, hizkuntza bakoitzeko.

Balorazioa egiteko erabiliko dira Euskal Herriko Unibertsitateko errektorearen 2012ko martxoaren 8ko Erabakiaren bidez hizkuntza ez-ofizialetarako ezarritako mailen arteko baliokidetzak.

Hizkuntza ez-ofizialen ezagutza egiaztatzeko, tituluaren fotokopiak aurkeztu beharko dira. Tituluak eskariak aurkezteko epea amaitu aurretik lortutakoak izan beharko dira. Ez da probarik egingo hizkuntza maila egiaztatzeko.

6.3.- Euskara.- Euskara merezimendutzat joko da, EAEko herri administrazioetan euskararen erabilera normalizatzeko prozesua arautzen duen Dekretuaren arabera (86/1997 Dekretua, apirilaren 15koa).

Honako puntuazio hau lortu ahal izango da, gehienez:

- 3. HE edo gorakoa: 6 puntu
- 2. HE: 3 puntu
- 1. HE: 1,5 puntu

Hizkuntza eskakizunak baliozkotzeko, bi arau hauek aplikatuko dira: 86/1997 Dekretua, apirilaren 15koa, EAEko herri administrazioetan euskararen erabilera normalizatzeko prozesua arautzen duena (41. artikulua), eta 297/2010 Dekretua, azaroaren 9koa, Euskararen jakite maila egiaztatzen duten tituluak eta ziurtagiriak baliokidetu, eta Hizkuntzen Europako Erreferentzi Marko Bateratuko mailekin parekatzeko dena.

Hizkuntza eskakizunak edo baliokideak egiaztatzeko dokumentuak merezimenduekin batera aurkeztu beharko dira horretarako zehaztutako epearen barruan.

Euskararen ezagutza egiaztatzeko, tituluaren fotokopiak aurkeztu beharko dira. Tituluak eskariak aurkezteko epea amaitu aurretik lortutakoak izan beharko dira, bestela ez dira aintzat izango.

6.4.- Lehiaketa fasea ez da baztergarria izango, eta fase honetan lortutako puntuazioak ez dira kontuan hartuko oposizio faseko ariketak gainditzeko.

6.5.- Merezimenduen eta euskararen behin-behineko puntuazioak argitaratu ondoren, bost egun balioduneko epea irekiko da erreklamazioak aurkezteko.

Epea amaituta eta erreklamazioak aztertuta (halakorik balego), puntuazioen behin betiko zerrenda argitaratuko da.

6.6.- Lan poltsan sartzen diren pertsonen **hurrenkera** erabakiko da puntuazio totalaren arabera. Bakoitzaren puntuazio totala kalkulatu da honako hauek

batuz: merezimenduen puntuazioa, euskarari dagokion puntuazioa eta oposizio faseko probaren puntuazioa. Berdinketa gertatuz gero, irizpide hauen arabera erabakiko da hurrenkera:

1. irizpidea: oposizio fasean puntuazio handiena lortu duenak izango du lehentasuna.
2. irizpidea: Merezimenduen lehiaketan puntuazio handiena lortu duenak izango du lehentasuna.
3. irizpidea: Lehentasuna izango du baremoko atal bakoitzean puntuazio handiena lortu duenak, oinarriotan atal horiek agertzen diren hurrenkera.

Irizpide hauek aplikatuta ere berdinketa hautsi ezin bada, zozketa egingo da, deialdiaren datan indarrean dagoen Langileak Estatuko Administrazioaren Zerbitzura Sartzeko Arautegi Orokorrean esaten den legez.

6.7.- Izangaiei eragiten dieten prozesuko ekintza guztiak web orrian argitaratuko dira, laugarren oinarriko lehen atalean esandako moduan. Jakinarazpenetarako jarraituko zaio Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legeari.

Zazpigarrena.- Epaimahaiaren proposamena.-

Hautapen prozesua amaitu ostean, epaimahaiak prozesua gainditu duten izangaien sailkapena egingo du, puntuazio totalen arabera, eta bakoitzak atal bakoitzean lortu duena zehaztuta. Gero, UPV/EHUko Gerentziari helaraziko dio zerrenda, prozesuen gaineko behin betiko erabakia har dezan.

Epaimahaiaren proposamenen kontra gorako errekurtsioa jarri ahal izango zaio UPV/EHUko Gerentziari, hilabeteko epean, erabakia argitaratu eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita.

Lan poltsa bakoitzeko zerrendan honako xehetasun hauek jasoko dira:

- Poltsako kide guztien izen-deiturak.
- Kide bakoitzaren hurrenkera zenbakia.
- Deialdi horretan parte hartu duten kideek baremoaren arabera lortutako puntuazioa.
- Euskarari eta hizkuntza ez-ofizialetan egiaztatutako mailak.

Zortzigarrena.- Gorabeherak.-

8.1.- Epaimahaiak eskumena izango du sortzen diren zalantzak argitzeko eta oinarri hauetan aurreikusita ez dagoen guztian hartu beharreko erabakiak hartzeko, hautaketa prozesua modu egokian bete dadin.

8.2.- Hautaketa prozesu bat gaituta lan poltsa batean sartzen direnek lan eskaintzetarako hobespenak zehazteko epe orokorra itxi ondoren lan poltsan sartzen diren momentuan zehaztu ahal izango dituzte hobespenok urte horretarako.

8.3.- Deialdia, oinarriak eta haietatik sortutako administrazio egintza guztiak inpugnatu ahal izango dira Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen Legean xedatutako kasuetan eta eran (39/2015 Legea, urriaren lekoa).

8.4.- Deialdi honekin lotutako informazioa emango da UPV/EHUko AZPkoen Zerbitzuan, Langileak Hautatzeko eta Lanpostuak Betetzeko Atalean (Errektoregoaren eraikina, beheko solairua, Leioako Campusa, Bizkaia).

Bederatzigarrena.- Baldintzak betetzen direla egiaztatzea.-

9.1.- Lan poltsatik lanerako deia jasoz gero, interesdunak aurkeztu beharko ditu bigarren oinarrian eskatutako baldintzak betetzen dituela egiaztatzeko dokumentuak, horretarako zehaztuko den epean.

9.2.- Ezinbesteko kasuetan izan ezik, adierazitako epearen barruan hautagaiak ez badu dokumentazioa aurkezten edo ez badu egiaztatzen baldintza guztiak betetzen dituela, hautatuen zerrendatik kanpo geratuko da automatikoki.

II. ERANSKINA

GAI ZERRENDA – KIMIKAKO TEKNIKARI ESPEZIALISTA POLTSA

1. Oinarrizko propietate fisikoak: pisua, masa, dentsitatea, bolumena, indarra, presioa, beroa, tenperatura. Definizioa. Unitateak.
2. Konposatu kimiko ez-organikoen eta organikoen Formulazioa eta Nomenklatura.
3. Materiaren egitura. Atomoa. Oinarrizko partikulak. Atomo zenbakia. Masa atomikoa.
4. Elementu eta propietate periodikoen sistema periodikoa. Balentzia kontzeptua.
5. Molekulak. Pisu molekularra. Mola. Substantzia baten konposizio ehundarra.
6. Lotura kimikoa. Lotura ionikoa. Lotura kobalentea, Lotura metalikoa. Molekula arteko indarrak.
7. Materiaren agregazio egoerak. Gas egoera. Likido egoera. Solido egoera. Egitura kristalinoa. Materiaren propietateak.
8. Disoluzioak. Disoluzio motak. Kontzentrazioa adierazteko moduak. Erreaktiboak eta disoluzio patrioiak prestatzeko eta estandarizatzeko prozedurak.
9. Disoluzioen propietateak. Ionizazioaren teoriak. Ura disolbatzaile bezala. Beste disolbatzaile batzuk.
10. Materia eta energia aldaketak erreakzio kimikoetan. Transformazio kimikoen azterketa. Termokimika. Oreka kimikoak.
11. Protoien transferentzia erreakzioak. Elektroien transferentzi erreakzioak. Elektrokimika. Pilak. Elektrolisia.
12. Kimika Ez Organikoa. Ez-metalak: halogenoak; anfigenoak; hidrazidoak; fosforoaren taldea; karbonoaren aldea. Metalak.
13. Karbonoaren kimika. Karbono-atomoa eta konposatu organikoak. Erreakzio motak. Talde funtzional nagusien erreakzio organikoak.
14. Kimika makromolekularreko oinarrizko kontzeptuak.
15. Laborategiko oinarrizko eragiketak. Laborategiko zerbitzu lagungarriak. Laginak hartzea eta prestatzea. Masa eta bolumen neurketak. Substantzien manipulazioa. Substantziak bereizteko eta arazteko teknikak.
16. Propietate fisiko-kimikoak. Saiakuntza motak eta tresnak. Saiakuntzak egitea substantziak identifikatzeko.
17. Analisi organikoa eta ez-organikoa, kualitatiboa eta kuantitatiboa. Orekak uretako disoluzioetan. Adierazleak. Kalibratze kurbak. Analisi bolumetrikoa. Erabilitako materiala eta gailuak.
18. Analisi instrumentala. Parametro instrumentalak. Kalibratze kurbak. Linealtasun heina. Interpolazioa. Metodo elektrikoak. Metodo optikoak. Teknika kromatografikoak. Beste metodo batzuk: Analisiak X izpien absortzioa eta difrakzioa.
19. Instrumentazioa eta kontrola. Presio neurketak. Tenperatura neurketak. Emari neurketak. Likidoen eta solidoen maila neurketak biltegietan. Hezetasun neurketak.
20. Erregulazioa. Erregulagailuak. Erregulazio elementuen ezaugarriak. Informazioaren transmisioa.

21. Datuak hartzea, lantzea eta aztertzea. Frekuentziak. Zentralizazioa eta dispersioa neurtzea. Erregresioa eta korrelazioa.
22. Jardun egokien arauak laborategian. Laborategiaren kudeaketa eta antolamendua. Ekipoen eta instalazioen mantentze-lanak. Kalitate Bermearen Programa. Kalitate kontrola. Lan-prozedura normalizatuak.
23. Segurtasuna eta Higienea lanean. Ordena, garbitasuna, kolorea eta seinaleak. Arrisku faktoreak. Prebentzio eta babes neurriak. Hondakinen kudeaketa. Makinak babestea. Langileak babestea. Ezbeharrak gertatuz gero jarduteko moduak. Lehen laguntza. Laborategiko larrialdietako plana. Osasuna eta arriskuen prebentzioa lanean.
24. 4/2005 Legea, otsailaren 18koa, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako: Printzipio orokorrak. Berdintasuna sustatzeko neurriak administrazio araudian eta jardunean.
25. Datu Pertsonalak Babesteko Legearen oinarritzko alderdiak: Kontzeptuak, Printzipioak eta Eskubideak; bereziki, informazioa jasotzeko eskubidea datuak biltzean, datu horiek gordetzeko eginbeharra eta datuen komunikazioa.